



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2014/2015 denboraldia

6 ZK.DUN ZIRKULARRA

EMAKUMEZKOEN EUSKAL LIGA

Euskadiko Futbol Federakundeak Emakumezkoen Euskal Liga lehiaketa antolatuko du 2014/15 denboraldian, ondorengoei jarraiki:

1. Parte hartuko dute klubak

Arratia C.D., Barakaldo C.F., Beasain S.D., Berrio-Otxoa A.D., Bizkerre C.F., Erandioko Betiko Neskak F.K.E., Eibar S.D., Gasteizko Neskak C.D., Hernani C.D., Lantaron C.D., Leioako E.S.F.K.E., Peña Athl Santurtzi C.F., Tolosa C.F., Zarautz K.E.

2. Lehiaketa sistema

Multzo bakarrean, puntuetara eta itzuli bitan (hogeita sei jardunalditan, guztira) egingo da lehiaketa, eta Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorreko xedapenak ezarriko dira.

3. Partiden data eta ordutegiak


Lehen itzulia: urriaren 5, 12, 19 eta 26; azaroaren 2, 9, 16, 23 eta 30; abenduaren 7 eta 14; urtarrilaren 4 eta 11.

Bigarren itzulia: urtarrilaren 18 eta 25; otsailaren 1, 15 eta 22; martxoaren 1, 8, 15, 22 eta 29; apirilaren 12, 19 eta 26.

Partidak larunbat arratsaldera aurreratu ahalko dituzte klub antolatzaileek, 15,30etik aurrera, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Esan ere, ordutegi lerro bat jarri dala, beraz partidak 10,30etatik-13,00etara eta 15,30etatik-18,30tarako bitartean hasiko dira, logikoki lehiatzen duten klubaren arteko akordioa izan ezik.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

4. Sailkapen ondorioak

Emakumezkoen Bigarren mailara lehenengo postuan sailkatutakoa igoko da.

Sailkapenean 13, eta 14. amaituriko taldeak beren lurraldeko ligara jaitsiko dira. Halaber, Emakumezkoen Bigarren Mailatik federazio honetako talderik jaitsiz gero, azken sailkapenean postu horien aurretxoan egondako taldeek, behar bestek, maila galduko dute.

Orobat, lurralde ligetan lehenengo postua lorturiko taldeak igoko dira Euskal Ligara,

5. Ordezpenak

Partidetan, gehienez bost futbolari ordeztu ahalko dira. Gehienez zazpi balizko ordezeko egon ahalko da, eta partida hasi baino lehen, horien izenak eta titularrenak jakin beharko ditu arbitroak.

6. Entrenatzaileak

Gogorarazten de tituludun Entrenatzaile beharrezkoa dela, gutxienez 1. Maila edo kirol teknikari lehenengo kurtsoa, igo berri diren klubak haien lehenengo denboraldian salbuespen.

7. Arbitroak

Partida jokatzen den lurraldeko federaziokoak izan beharko dute. Lurralde Maila Goreneko arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

8. Diziiplina Araudia

Euskadiko Futbol Federakundearen Diziiplina Araudiak arautuko du lehiaketa, eta gerta daitezkeen gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziiplina eta Apelazio batzordeek ebartziko dute.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2014ko irailaren 1n.

JON ANDER GAMBOA AGUIRRE

Secretario General